



euskal mendizale **federazioa**

# **EHUN MENDIEN LEHIAKETAREN ARAUDIA**





# EHUN MENDIEN LEHIAKETAren ARAUDIA



## I. Definizioa eta iraupena

Ehun Mendien Lehiaketa Katalogo honetan lerrokatzen diren mendietatik ehun desberdinetara igotzean datza, betiere ondoko artikuluetan seinalatzen diren baldintzak errespetatuz. Lehiaketak gutxienez bost urteko iraupena izango du eta gehienez hamarrekoa.

## II. Lehiatzaileak

1.- Euskal Mendizale Federazioa osatzen duten mendizale-taldeetako bazkide guztiak parte har dezakete Lehiaketa honetan, puntuatzen hasten denetik eta Lehiaketak dirauen epe osoan zehar urtez-urteko Federazioaren baimena aldean edukiz. Lehiatzaileak zazpi urte betetzen dituen hartatik has daiteke puntuatzen.

2.- Mendizale batek klub bat baino gehiagoko partaide denean, urte bakoitzean klub horietako bakar baten izenean lehia dezake. Lehiaketan parte hartzen ari den bitartean mendizale taldez aldatuz gero, klub berrian jarrai dezake lehiaketarekin.

## III. Mendi puntuagarriak

1.- Oraingo Katalogo honetako herrialde-zerrendetan agertzen diren Euskal Herriko mendi guztiak kontsideratzen dira mendi puntuagarriak.

2.- Era berean, puntuagarriak izango dira herrialde bakoitzaren ondoko eremuko zerrendetan agertzen diren mendiak, Euskal Herritik kanpo egonik ere, tradizionalki datzekien herrialdeko luzapen geografiko baten modura ulertu direlako eta euskal mendizaleek, igo ere, sarritan igo ohi dituztelako. Mendi hauek Euskal Herriko mendien baldintza berberetan onartuko dira Ehun Mendien Lehiaketarako.

3.- Salbuespen modura, Euskal Herritik kanpoko mendiak ere baliagarriak izan daitezke Lehiaketarako. Katalogoaren bigarren atalean, Pirinioetako eta Iberiar Penintsulako mendigune garrantzitsuenetako gailur puntuagarrien lerrokadak ematen dira. Katalogoan agertzen ez diren mendiak, Ehun Mendien Lehiaketarako puntuatu nahi baldin badira, garrantzi altimetrikoa eta balio geografikoa bezalako bereizgarritasunak izan behar dituzte, honela Ehun Mendien finalista baten mendi-historialean agertzeko modukoak izan daitezken. Halako mendiak onartzeko, edozein kasutan ere, Anaidiko Idazkariaren oniritzia izango da beharrezkoa. Euskal Herritik kanpo puntuatutako mendiok ezin izan daitezke hogeita bost baino gehiago, eta Katalogoan ez daudenak, gehienez bost izan litezke. Igoaldi hauei buruzko informazio guztia historialari eutsitako eranskinean eman beharko da.



## EHUN MENDIEN LEHIAKETAREN ARAUDIA



### IV. Igoaldiak

- 1.- Mendi batera egindako igoaldiak balioa izan dezan, ezinbestean lortu behar da mendi horren punturik gorena, igoaldia mendiaren edozein isurialdetatik eginik ere.
- 2.- Egun bakoitzeko mendi bakar bat puntua daiteke Lehiaketarako. Urtean gehienez hogeit hamar mendi egin daitezke eta ez dago urteko igoaldien gutxieneko kopururik.
- 3.- Ehun Mendien Lehiaketa klubek antolatzen dituzten altuera, mendi, ibilaldi nahiz beste edozein lehiaketarekin batera egin daiteke. Era honetan, mendizale-talde baten edozein lehiaketa nahiz txapelketatarako egiten den igoaldi batek Ehun Mendien Lehiaketarako ere balio izan dezake aldi berean.

### V. Arau orokorrak

- 1.- Ehun Mendien Lehiaketa seinalaturiko epeetan eta bete behar diren baldintzetan amaitzen duen lehiatzaileak, Finalista Ehundun bezala ofizialki onartua izateko eskubidea izango du eta Mendizale Ehundunen Anaidiko partaide izaten hasiko da.
- 2.- Mendizale Ehundunen Anaidia, behin bada ere, Ehun Mendien Lehiaketako finalista izendatuak izan diren mendizaleek osaturiko elkarte ohorezkoa da.
- 3.- Mendizale Ehundunen Anaidiak Idazkari bat izango du Araudi hau betearazteko behar diren administrazio lanez arduratuko dena, baita lehiatzaileen eskaerak bideratzeaz, dagozkien diplomak banatzeaz, finalisten erroldatze lanak eguneratzeaz eta abarrez ere.
- 4.- Ehun menditarako igoaldiak bukatu dituen mendizaleak, hau da, Finalista Ehundunari dagokion ziurtagiria jasotzeko eskubidea duenak bere klubaren bitartez egingo du Anaidian sartzeko eskaera eta Idazkaritzara bideratuko du.
- 5.- Guztiz betetako eskaerak beren beregi dagoen inprimakian aurkeztu beharko dira eta, ezinbestez, klubaren Lehendakariaren oniritzia ere jasoko du, honela datu guztien egitasuna eta zehaztasunaren ardura hartzen dituela bere sinadura eta zigiluaren bidez adierazia.



## EHUN MENDIEN LEHIAKETAREN ARAUDIA



### VI. Lehiaketaren emendioa

Finalista Ehundunak osterara ere lehia dezake, lehenengo aldiaren baldintza berberetan, honela Bigarren Ehundun, Hirugarren Ehundun eta abarreko graduetera helduz. Lehiaketa hauetan igotako tontorrak, elkarretatik desberdinak ez ezik, aurreko lehiaketako edo lehiaketetako zerrendetan zetozenak ez beste batzuk izango dira ere, eta sorta berria osatuko dute. Salbuespen legez, igoaldirako guztiz ibilbide desberdina erabili dela ziurtatzen bada, aurreko lehiaketetan puntuaturiko mendietako ehuneko hogeit bat errepika daiteke. Ehuneko hogeit horren barruan eta bost baino gehiago izan barik, Euskal Herriko beste tontor batzuk ere sar daitezke, Katalogoan agertu ez arren, mendizaleen artean interesgarriak izanik, Ehun Mendien historial batean agertzeko duinak direnean. Mendiok lehiatzailearen aldetik egindako proposamen izaera izango dute, Katalogoaren hurrengo errebisioan kontuan izango direnak. Nolanahi ere, mendi hauek puntuatzeko Anaidiko Idazkariaren oniritzia izan beharko dute.

Lehen lehiaketatik aurrera, puntuatutako urteko gehienezko mendi kopurua hogeita bostera igotzen da.

### VII. Azken arauak

- 1.- Honako araudi hau Mendien Katalogo honetan agertzen den dataren hurrengo egunean sartuko da indarrean, gai honi buruz aurretik emandako arau guztiak indargabetuz.
- 2.- Araudi honen interpretazio nahiz hedadurari buruzko edozein zalantza sortuz gero, Mendizale Ehundunen Anaidiaren Idazkaritza Orokorrak hartuko du azken erabakia.

Gasteizen, 2013.eko abenduaren 30a

### MENDIZALE EHUNDUNEN ANAIDIA

Joseba Undurraga Bidasolo  
Idazkaria

O.I.

### EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Joseba Ugalde Egaña  
Lehendakaria